

**2010EKO OTSAILAREN 1EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Bat

HILABETEA: Otsaila

URTEA: Bi mila eta hamar

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Jon Kortaberria Lasa
Fernando Boada González
Begoña Lasa Royuela
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2009ko abenduaren 21eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ENPLEGU ETA TOKI JASANGARRITASUNERAKO ESTATUKO FONDOA. Estatuko Fondoarekin finantzatzeko proiektuak onartzea.

Hirigintza batzordeak proposatuta, ezagutzera eman da Enplegu eta Toki Jasangarritasunerako Estatuko Fondoaren kontura ondoren aipatzen diren proiektuetan aurreikusten diren obrak gauzatzea eta prozedura irekiaren bidez lizitatzea deialdi publikoa eginez:

- Irakaskuntza guneak egokitzea: udal Euskaltegia eta HHlrako gelak (helduen hezkuntza iraunkorra). Aurrekontua 516.288,17, BEZ barne.
- Udal jabetzakoak diren lokalen hobekuntza: ludoteka, udaltzaingoa eta udaletxearen beheko oina. Aurrekontua: 944.241, 83, BEZ barne.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE), beraiek desadostasuna azaldu du bigarren proiektuarekiko obra horien artean ez delako politikoentzako gelarik aurreikusten.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.